



ERABAKIA, 2023ko AZAROAREN 10ekoa, GRADUAREN ETA HEZKUNTZA BERRIKUNTZAREN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, EZARTZEKO i3 LABORATEGIAK HEZKUNTZA BERRIKUNTZAKO PROGRAMAREN BALDINTZAK, EZARTZEKO HBP/PIE i3lab-en OINARRIZKO BALDINTZAK, ETA ABIAN JARTZEKO LEHENDABIZIKO i3lab LABORATEGI IRAUNKORRAK

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2021eko urtarrilaren 28ko Erabakiaren arabera (errektorearen eskumenak eskuordetzeko eta gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko erabakia), Graduaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren arloko errektoreordeari dagokio hezkuntza berrikuntzako programak ezartzea eta zabaltzea, titulazioak hobetzeko hezkuntza berrikuntzaren, nazioartekotzearen eta enplegarritasunaren arloetan, beste errektoreordetzekin koordinatuta.

Graduaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren arloko Errektoreordetzak bere zereginen artean du, Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuaren (HELAZ) bitartez, hezkuntza berrikuntza bultzatzea eta babestea, UPV/EHUren hezkuntza eredu propioaren garapenetik sortutako premietatik abiatuta. Horretarako, hainbat jarduera ildo ezarri ditu ereduaren proposamenak garatzeko, ekintza berritzaileak ezarri eta ebaluatzeko, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen hobekuntzak curriculumean txertatuko direla bermatzeko, eta eredu horrekin lerrokatutako unibertsitateko irakasleen prestakuntza sustatzeko. Horrekin guztiarekin, sustatuko da hezkuntza berrikuntzak nabarmen egin dezala gora unibertsitateko titulazioetan.

Ildo horretatik jarraituz, Graduaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren arloko Errektoreordetzak fase berri batera eraman ditu *i3 laborategiak* programaren egitura eta funtzionamendua, irakaskuntza-ikaskuntza jarduera guztietan hezkuntza eredu txertatzen jarraitzeko eta eredu kolektibo berrietara zabaltzeko, ondoren azalduko den bezala.

i3 LABORATEGIAK PROGRAMA

UPV/EHUk i3 izeneko hezkuntza eredu propioa du. Eredu hori da UPV/EHUk 2010. urtean definitu eta garatu zuen IKD ereduaren bilakaeraren ondorio. IKD eredu abian jarri zen Europak hasiera eman zionean Goi Mailako Hezkuntzaren alorreko politika bateratuari. Ondoren, Nazio Batuen 2030 Agenda eta Europar Batasunaren Goi Mailako Hezkuntzarako Agenda Berritua (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/EN/TXT/PDF/?uri=CELEX:52017DC0247&from=DA>) argitaratu eta gero, 2015. eta 2017. urteetan hurrenez hurren, unibertsitateak erronka berriei erantzuteko beharrean aurkitu ziren, besteak beste honako hauei:

1. Ikasketa programa eta plan batzuk diseinatzea, ikasleen ikaskuntza beharretan oinarritutako direnak, goi mailako gaitasunen, zeharkako gaitasun aurreratuen eta oinarritzko gaitasunen garapen eraginkorra bermatzeko, Europak erronkei erantzun ahal izango diela bermatzeko. Horretarako, beharrezkoa da enplegatzailerekin



lankidetzan aritzea eta benetako arazoetan oinarritutako ikaskuntza jarduerak eramatea aurrera.

2. Goi mailako hezkuntza sistemak sortzea, integratzaileak eta konektatuak, aurre egiteko gero eta handiagoak diren gizarte desberdintasunei: sistema horietan sartzea sozio-ekonomikoki desabantailak dituzten kolektiboak, migratzaileak, hiriak eta eskualdeak garatzea, giza eskubideei eta gizarte gaien buruzko eztabaida publikoa sustatzea eta abar.
3. Goi mailako hezkuntza erakundeek berrikuntza bultzatzen dezaten bermatzea: titulazioen garrantzia indartzea enplegarritasunari begira, aurrerapen zientifikoaren transferentzia handitzea, eta doktorego programak fokalizatzea enplegu sektorearekin elkarrekin.

Erronka horiei erantzun ahal izateko, UPV/EHUK IKD ereduaren berrirakurketa bat egin zuen, gaur egungoa sortzeko: IKDi3 eredu (‘i ber hiru’: **ikaskuntza x ikerketa x iraunkortasuna**), ikaskuntzaren, ikerketaren eta iraunkortasunaren konbinazioak biderkatzeko duen ahalmena adierazteko modu sinboliko bat.

IKDi3 ereduak gure unibertsitateko titulazioen hezkuntza berrikuntzan jauzi kualitatibo eta kuantitatibo bat egiteko oinarriak jarri zituen; izan ere, curriculum eta metodologia aurrerapena ahalbidetu zuen irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan, eta (a) gaitasun konplexuak garatzea erraztu zuen, hala nola **Zeharkako Gaitasunen Katalogoan** deskribatutakoak, (b) irakaskuntzan ikerketa sustatzea eta (c) garapen iraunkorrerako helburuak lortzea, UPV/EHUren hiru plan sektorialeiei lotuta (**2030 EHUagenda**: Berdintasun Campusa, Inklusio Campusa eta Planeta Campusa). Horrela jaso zen **UPV/EHUren 2022-2025 aldirako Plan Estrategikoan**.

Orain, 2023an, eredu finkatuta dagoen une batean gaudela esan dezakegu: UPV/EHUko Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuan dauden datuen arabera, gure unibertsitateko irakasle gehienek konpromisoa dute hezkuntza eredu horretan ezarritako ikaskuntza kontzeptuekin. Konpromiso hori sendoagoa da eredu sakonki ezagutzen dutenen artean, eta konpromiso horrek, era berean, IKDi3 estrategian aktiboki parte hartzea errazten du, dela hezkuntza berrikuntzarako proiektuen bidez, dela beste bide batzuen bidez. Izan ere, HELAZek dituen datuen arabera, irakasleen hiru laurdenek baino gehiagok erabiltzen dituzte metodologia aktiboak beren irakasgaietan.

Gauzak horrela, barneko eta kanpoko komunikazioaren aldeko apustua egiteko unea da, irakaskuntza-ikaskuntza jarduera guztietan hezkuntza eredu txertatzen jarraitzeko eta eredu kolektibo berrietara zabaltzeko, hala nola irakasle berrien kolektibora.

Beraz, helburu berriak planteatzen dira:

- Hezkuntza ereduaren elementu nagusiak modu errazagoan eta zuzenagoan komunikatzeko beharra, ereduaren aplikazioa zabaltzeko eta hedatzeko asmoarekin. Horrela, irudi eta izen berrira heldu gara: i3 eredu. Ereduaren bilakaeraren fase honetan, eta eskuragarri ditugun datuekin eta deskribatutako ibilbidearekin koherente izanik, lehen IKD akronimoan zeuden kontzeptuak lehenengo ‘i’ letran txertatzen dira. Beraz, i3:
 - Ikaskuntza kooperatibo eta dinamikoa
 - Ikerketa



- Iraunkortasuna

- Eredu horren hedapena finkatzea, UPV/EHU hezkuntza eredu zabaltzeko egiten den jarduera modu koherentean hautemanetz eta antolatuz, hainbat zuzendaritza eta errektoreordetzetatik.
- Gure inguruko gizarte erronkei erantzuteko eta ekarpenak egiteko lan ildo estrategiko batzuk indartzea.

Ildo horretatik, 2023-2024 ikasturte honetan beste fase batera eramango ditugu *i3 laborategiak* programaren egitura eta funtzionamendua. Hori dela eta, aurrerantzean bi garapen ildo izango ditu:

1. Azken urteotan *ikd i3laborategiak* izenarekin egindako ibilbideari jarraipena emanez, urtero argitaratuko da *i3 laborategiak* hezkuntza berrikuntzarako proiektuen deialdia, *HBP/PIE i3lab* izen berriarekin.

HBP/PIE i3 deialdiaren helburua da irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan eragin positiboa izango duten jarduera edo planteamendu berriak probatu eta ebaluatzea, eta, behar bezala ebaluatu ondoren, hobera egiten duten alderdiak kasuan kasuko titulazioen curriculumetan txertatu ahal izatea. Gainera, proiektuen kategoria gorenean (ONDU) egonkortasuna eta jarraitutasuna eman nahi zaie ikastegiaren proiektu estrategikoei, lan esparru egonkorra eskaintzen baitute GrALak eta MALak diziplina anitzeko edo diziplinarteko ikuspegi batetik egiteko, ikasleek beren lanen bitartez erantzuna ematen dieten gizarte erronkak dakartzaten kanpoko erakundeekin lankidetzan.

2. Berrikuntza moduan, eta **UPV/EHUren 2022-2025 aldirako Plan Estrategikotik** eta 2023-2026 aldirako Unibertsitate Planetik eratorritako ildo estrategiko nagusiei bultzada emateko, laborategi iraunkorrak jartzen dira abian. Laborategi horiek dira UPV/EHUrentzat lehentasunezkoak eta estrategikoak diren irakaskuntza eta ikaskuntza metodologiak eta estrategiak garatzera eta finkatzera bideratutako unitateak, eta Hezkuntza Berrikuntzaren arloko eskumena duen errektoreordetzak definituko ditu.

Laborategi horiek berrikuntza, ikerketa eta transferentzia jarduerak eramango dituzte aurrera, bai eta horietako bakoitzean landuko den gaiari buruzko prestakuntza eta kontsulta jarduerak ere. Laborategiaren izenak lotura izan beharko du jardueraren xedearekin, eta "i3lab" erantsiko zaio izenari.

Horregatik, eta UPV/EHUren plangintza estrategikoari lotuta egoten jarraitzeko asmoz, ondoren aipatzen diren laborategi iraunkorrak jarriko dira abian 2023-2026 aldian. Laborategi horiek prestakuntzarekin, berrikuntzarekin, ikerketarekin, transferentziarekin eta aholkularitzarekin zerikusia daukaten jarduerak bultzatuko dituzte kasuan kasuko jarduera eremuan. Hauek dira laborategiak:

- a. CBE i3lab: laborategi honek "Challenge Based Education" metodologiarekin lotutako azterlanean aurrera egitea izango du helburu, ENLIGHT proiektuarekin lerrokatuta eta horrekiko koherentziaz.
- b. S-L i3lab: Laborategi honek "Service Learning" (zerbitzuen bidezko ikaskuntza) metodologiarekin lotutako azterlanean aurrera egitea izango du helburu, metodologia horren inguruan lanean diharduten estatuko zein nazioarteko sareen proposamenekin lerrokatuta eta horiekiko koherentziaz.



- c. DuAl i3lab: laborategi honek prestakuntza dualari eta txandakako prestakuntzari buruzko azterlanean aurrera egitea izango du helburu, horien inguruan estatuan zein nazioartean egingo diren proposamenekin lerrokatuta eta horiekiko koherentziaz, bereziki 2022-2026 aldirako U+E Euskal Estrategiarekin.

Laborategi iraunkorren osaera hau izango da: (a) koordinatzaileak, (b) talde eragilea, eta (c) komunitatea.

Aipatutako hiru laborategiak baldintza hauetan jarriko dira abian:

1. Parte hartzaileak. Parte hartzea hiru mailatan egituratuko da, modu honetara:

- a. Laborategi iraunkorren koordinazioa: laborategi bakoitza gutxienez bi pertsonak zuzenduko dute. Koordinatzaileetako bat HELAZeko zuzendaritza taldeko kide bat izango da, eta beste koordinatzailea IRIen taldeko kide bat izango da, esperientzia eta ibilbide egiaztatua izango dituena laborategiaren jarduera eremuan. Gaian aditua izango den IRIen taldeko kidea Hezkuntza Berrikuntzaren alorrean eskumen izango duen errektoreordeak izendatuko du, eta bere lanak aitorpen akademikoa izango du, Irakasle-ikertzaileen arloan eskumena izango duen errektoreordetzak zehaztuko duen moduan. Beste errektoreordetzaren batek parte hartu behar izanez gero laborategiaren garapenean, errektoreordetza horretako hirugarren pertsona bat ere koordinazio taldean egongo da.

Koordinatzaileen ardura izango da kideak batzea talde eragilerako eta laborategia ezagutzera ematea, laborategiaren jardueretan interesa duten pertsonen komunitate bat eratu ahal izateko.

Koordinazio taldearen ardura izango da, bestalde, Hezkuntza Berrikuntzaren alorrean eskumena izango duen errektoreordetzari aurkeztea urteko memoria eta hurrengo urteko eginkizunen plana.

- Urteko memorian jasoko da urtean zehar egindako jarduera, izandako gastuen justifikazioa barne.
- Eginkizunen planean azalduko da hurrengo urtean aurrera eramango den proposamena: helburuak, jarduerak, arduradunak eta beren eginkizunak, eta bakoitzari dagokion aurrekontua.

Aipatutako dokumentuak urte bakoitzeko abenduaren 20an aurkeztu beharko dira.

- b. Talde eragilea: koordinatzaileek batutako kideek osatuko dute taldea (IRI, TEKAZEL, ikasleak eta kanpoko lankideak) eta, koordinatzaileen zuzendaritzapean, laborategiaren urteko helburuen diseinuan hartuko dute parte, eta helburu horiek bete ahal izateko jarduerak eramango dituzte aurrera.
- c. Komunitatea: laborategian landuko den gaian interesa izango duten kideek osatuko dute (IRI, TEKAZEL, ikasleak eta kanpoko lankideak). Laborategi bakoitzak komunitatea osatuko duten pertsonen zerrenda bat izango du, eta bere jardueren berri emango die, ekitaldietara gonbidatuko ditu eta abar. Komunitateko pertsonak ez dute hartzen inolako konpromisorik,



informazioa jasotzeaz gain, baina laborategiaren zereginean inplikatu ahal izango dira laborategiak aukera hori eskaintzen duenean.

2. Bitartekoak. *i3lab* laborategi iraunkor bakoitzak bitarteko hauek izango ditu:

- Espazioak: aipatutako laborategiek Sormen gela (Bibliotekaren eraikina, 6. solairua) erabili ahal izango dute bilerak egiteko edota laborategiaren garapenarekin zerikusia daukaten jarduerak egiteko. Era berean, Araba eta Gipuzkoako campusetako beste espazio batzuk erabili ahal izango dituzte helburu bererako, HELAZeko koordinatzailearen bitartez.
- Jarduerak aurrera eramateko finantziarioa: laborategiek Hezkuntza Berrikuntzaren alorreko errektoreordetzak HELAZen bitartez emango dien finantziarioa izango dute, jarduerak aurrera eramateko urte natural bakoitzean. Aipatutako errektoreordetzak zehaztuko du urteko aurrekontua, ikusita urtero aurkeztu beharreko dokumentuetan bildutako informazioa. Urtarrilean emango zaie aurrekontuaren berri laborategiei.

Laborategi iraunkorrek 2023ko azaroan hasiko dira lanean, koordinatzaileak izendatu eta talde eragilea osatzeko agindua eman ondoren. Era berean, 2024ko eginkizunen plana aurkeztu beharko dute, aurtengo urtea amaitu baino lehen. Datorren urtariletik aurrera, 2024. urtean jasoko duten diru kopuruaren berri emango zaie, eta horrela ohiko funtzionamenduari ekingo diote, bat etorrira dokumentu honetan adierazitakoarekin.

Laura Vozmediano

Graduaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren arloko errektoreordea